



## UDALAREN ERAKETA AKTA

Parte hartu duten zinegotziak:

### **EAJ/PNV talde politikoko hautatuak:**

Kepa Zubiarrain Erauskin  
Eneritz Miranda Muxika  
Aitor Altuna Oiarbide  
Amagoia Naldaiz Mingo  
José Manuel Sesé Eztala  
Unbe Etxaniz Pérez  
Aritz Goicoechea González de Audicana

### **EH BILDU talde politikokoak:**

Joxe Mari Ormazabal Sukia  
Aitziber Azurmendi Imaz  
Egoitz Bergara Azpirotz  
Maialen Amundarain Irizar  
Haritz Antoñanzas Urdangarin  
M<sup>a</sup> Carolina Aguirre Mastrangelo

Lazkaoko Udaletxeko Areto Nagusian, bi mila eta hogeita hiruko ekainaren hamazazpiko eguerdiko hamabietan bildu dira lehen deialdian, joan den maiatzaren hogeita zortzian egindako udal hauteskundeetan aukeratuak izan eta alboan zerrendatuta agertzen diren zinegotzi hautatuak.

Idazkari lanetan Lazkaoko Udalaren Idazkari den Idoia Garmendia Callejak dihardu.

Idazkariak adierazi du batzarraldi honen helburua Udalaren eraketa dela, horrela martxoaren 13ko 8/1991 Lege Organikoak aldatutako Hauteskunde Orokorretako Lege Organikoaren 195.1 artikulua eta Udal Korporazioetako Antolakuntza eta Funtzionamenduari buruzko Erregelamenduaren 37.1 artikulua agindutakoa betez, ondoko gai zerrendaren arabera:

- Korporazioa eratzea.
- Alkatea aukeratzea eta karguaren jabe egitea, kasua balitz.

Idazkariak batzarraldiari hasiera eman ondoren, legealdiaren LIKIDAZIOARI dagokionez, lau urtetako mandatua ixteko hainbat ekintza egin behar direla esan du, hala nola: aurreko aktak onartu, inbentarioaren egoera konprobatu, arkeoa egin, eta kargua uzten duten zinegotziek udalean entregatu beharreko ondasun eta interesen aitortpenak jaso:

- Aurreko aktak ekainaren 14an onartu ziren
- Inbentarioa eguneratzea. Plenoak onartu zuen maiatzaren 25ean eta eguneratuta dago.
- Kontaketa, hau da, Udal Kutxan edo finantza erakundeetan gordailututako eskudiruzko izakinen edo korporazioaren balore propioen egiaztagiriak, egin dira.
- Kargua utzi duten zinegotziek ondasun eta interesen aitortpenak aurkeztu dituzte.

Lan horiek eginda, Korporazioa osatzeko moduan dela esan du Idazkariak:

Korporazioa 13 kidek osatuko dutenez, ondo bidez osatzeko behar den quoruma gehiengo osoarena da, hau da, 7 boto.



Horretarako lehendabizi, ADINEKO MAHAIA osatu behar da martxoaren 13ko 8/1991 Lege Organikoak aldatutako Hauteskunde Orokorren Erregimenari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoko 195.2 artikuluan aurreikusitakoa betez. Mahai hau adinez nagusia eta gazteena diren zinegotziek eta Idazkariak (kasu honetan Udalarenak) osatuko dute. Adinez nagusia den zinegotzia, Joxemai Ormazabal Sukia da eta mahaiaren lehendakari lanak egingo ditu. Adinez gazteena berriz Unbe Etxaniz Perez da. Idazkariak hurbiltzeko eskatu die.

Mahaia eratu ondoren, Idazkariak Udal Batzarrari adierazi dio, zinegotzi hautatu guztiak egin dutela ondare ondasunen aitortpena eta hau jakinaren gainean gelditu da.

Era berean, Idazkariak Udal Batzarrari adierazten dio eta hau jakinaren gainean gelditzen da, zinegotzi hautatu guztiak egin dutela dagokien balizko bateraezintasun kausei eta jardueri buruzko aitortpena.

Jakinarazi du, baita ere, aitorten horiek inskribatuak izan direla horretarako gaitu diren Erregistroetan.

Mahaiaren idazkariak aldeztu aurretik berari entregatutako kredentzial guztiak banan banan irakurri ditu, zinegotzi hautatuen nortasuna kreditatzen dutenak, eta Mahaikideek kredentzial horiek egiaztatu ondoren, Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak Udaletxe honetara bere garaian bidali zituen ziurtagiriekin bat datozela ikusi da.

#### KORPORAZIOAREN ERAKETA.-

Aurreko pausua eman ondoren, eta kontuan izanik batzarraldi honetara hautatuak izan diren zinegotzi guztiak etorri direla, hau da, gehiengo absolutu legala, Adineko Mahaia-  
ren lehendakariak karguaren jabetza eman die zinegotzi hautatuei, aldeztu aurretik legezko tramite guztiak bete ondoren eta Korporazioa formalki eratu dela aldarrikatu du.

#### ALKATEA AUKERATZEA.-

Idazkariak bertan daudenei adierazi die martxoaren 13ko 8/1991 Lege Organikoaren bidez aldatutako Hauteskunde Orokorren Erregimenari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 196 artikuluan xedatzen denaren arabera, Korporazioa eratu den batzarraldi berdinean aukeratu behar dela alkatea ere, lege horretan ezarritako prozedurari jarraiki:

- Hautagai, zerrendaburu diren zinegotzi guztiak dira.
- Hautesle, bertan dauden zinegotzi hautatu guztiak dira.
- Aukeraketa txartel sekretu bidez egingo da, botazio bakarra eginez.
- Botoen legezko gehiengo osoa lortzen duen hautagaia izango da hautatua, beraz, gutxienez 7 boto beharko dira.





- Botazio honetan gehiengo osoa hautagaietako inork lortzen ez badu, automatikoki, botu kopururik handiena lortu duen zerrendako buru den zinegotzi hautatua aldarrikatuko da alkate. Berdinketa gertatuz gero, zozketa bidez ebatziko da.

Txosten honen ondoren eta gai honi buruz ditugun aurrekarietan oinarrituz, ondoko zinegotzi hautatuak izendatu dira alkategai:

Kepa Zubiarrain Erauskin, EAJ/PNV alderdiko zerrendaburu dena.  
Joxemai Ormazabal Sukia, EH BILDU alderdiko zerrendaburua dena.

Idazkariak adierazi du zinegotzi bakoitzak mahai gainean duen txartel zuri bakoitzean, Alkatetarako bozkatuko duen zinegotziaren izen-deiturak jarri behar dituela eta txartela tolestuta horretarako prestatutako hautestontzian sartu beharko duela.

Behin txartel guztiak jaso ondoren, botoen kontaketa egin du Adineko Mahaiak, honako emaitzarekin:

Kepa Zubiarrain Erauskin zinegotzia,	7 boto
Joxemai Ormazabal Sukia zinegotzia,	6 boto

Bozketa honen emaitza ikusirik, Kepa Zubiarrain Erauskin zinegotzi hautagaia aldarrikatu da Udal honetako Alkate, hautagai hau izan delako botoen legezko gehiengo osoa lortu duena.

Jarraian, Kepa Zubiarrain Erauskin zinegotzi hautatuak Udal honetako Alkate kargua onartu egiten duela adierazi du eta, hauteskunde legeriak ezarritako formularen arabera betekizunak egin ondoren, karguaren jabetza hartu du edukitza hau ematen dion korporazio osoaren aurrean, edukitza horrek barnean hartzen dituelarik indarrean dauden xedapenek ematen dizkioten prerrogatiba, eskubide eta betebeharrak guztiak.

Alkatea hautatua izan ez den hautagaiak bere hitzaldia egin du.

Jarraian, Alkateak kargu hartzearen inguruko hitzaldia egin du.

Alkateak, bertaratu diren guztiei eskerrak emanez amaitutzat eman du Udal korporazioaren eraketa ekitaldia, eta batzarraldia akta honen goiburuan adierazitako egunean amaitu da, nik, idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.